

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure proiektuaren bidez eguneroko bizitzan mugikorraren erabilpenean suertatzen zaizkigun bi arazo konpondu nahi ditugu, arazo hauei aurre egingo dien gailu bat asmatuz.

Mugikorra gaur egun ezin bestekoa dugun tresna dela ikusita, honen erabilpenak dakartzan arazoak konpontzea da gure asmoa. Horrela, honen erabilpena **erosoagoa** eta **praktikoagoa** egingo zaigu.

Konpondu beharreko lehenengo arazoa bateriarekin lotuta dago. Mugikorra hainbeste erabiltzen dugu, non kargak ez digun egun oso bat ere irauten eta askotan itzalita eramaten dugu poltsikoan. Hau konpontzeko, eramangarria izango den kargagailua merkaturatu nahi dugu. Ez da kargagailu arrunta izango; energia iturri bezala eguzkia erabiliko du. Hau da, gure kargagailua eguzki-plaka batez baliatuko da energia mugikorrari emateko eta hau uneoro kargatuta mantentzeko.

Orain arteko kargagailu eramangarriek kargatuta egon behar dute mugikorrari energia emateko. Horregatik, hauek etxean ere kargatzen egon behar dute gero kalera atera nahi badira. Horrek esan nahi du kargagailuari berari ere bateria agortu egiten zaiola, eta horrela ez dugu benetako arazoa konpontzen. Gure produktuak ordea, eguzkia besterik ez du behar energia emateko. Eguzki argiak plakan jotzen duen orduko energia igorriko dio mugikorrari eta honen bateria kargatzen hasiko da. Eguzki argia gastatzen ez dela ikusita, gure kargagailuak nahi adina energia emango dio mugikorraren bateriari. Hori horrela ikusita, eguzkiak jotzen duen edozein tokitara eraman dezakegu, baita gailurrik altuenera ere. Gainera, naturarekiko jasangarria da gailu hau, energia mota honek ez baitu kutsatzen.

Lehenago ere badaude horrelako kargagailuak, baina hauek handiegiak dira erosoak izateko. Azken batean, eramangarria den zerbaitek eroso eta praktikoa izan behar du alboan eramateko, eta gaur egungo tresna handiek ez dute hori eskaintzen. Horregatik, gure produktuari balore kualitatibo bat emanez, tamaina txikikoa izango da.

Orain arte merkatuan dauden eguzki-plaka kargagailu eramangarriak hauek dira:



Bigarren akatsa edo arazoa internetarekin lotu dugu. Interneta denok dugu mugikorrean, baina gehienetan mugatua. Askotan internet gabe geratzen gara segituan eta hortik aurrera "wifi"az bakarrik baliatu gaitzke interneten sartzeko. Gainera, koberturaz kanpoko lekuetan zaila da interneten konektatzea eta sarean azkar nabigatzea.

Arazo hori ikusita, gure produktuak eguzki plaka kargagailua edukitzeaz gain, interneta ere emango du. Azken ezaugarri honek are ezberdinagoa egiten du gainerako kargagailu portatilengandik.

Modem USB teknologiaz baliatuko gara azken ezaugarri hori lortzeko. Modem USBak SIM txartela erabiltzen du internetera konektatzeko, eta gehienetan 3G motako interneta ematen du. Ideia gure gailuak modem USB hori bera edukitzea da interneta nonahi eman dezan, baita lekurik isolatuenetan ere.

Funtzionamendua honako hau da: telefono konpaniek, SIM txartel bereziak edukitzen dituzte modu honetako interneta emateko. Kontua da, horrelako SIM txartelek internet mugagabea ematen dutela nonahi, hilabetean diru kantitate bat ordainduz, noski. Gure gailuak SIM txartel hau sartzeko zuloa edukiko du, baina hauetako txartel bat erostera erosle bakoitzak joan beharko du bere telefono konpaniara. Hau da, SIM txartelaren kostua ez da gure gain geratzen.

Mugikor libreen antzera funtzionatuko du. Mugikor libre bat erostean, ondoren norberak joan behar du bere mugikor konpaniara eta SIM txartela eskuratu. Gure gailua erosterakoan berdina izango da. Norberak joan beharko du bere telefono konpaniara Modem USB motako SIM txartela erostera, internet mugagabea emango diona.

Horrela, gure mugikorreko interneta agortu bazaigu edota gauden lekuan koberturarik ez badago, gure gailua kable baten laguntzaz mugikorrera entxufatu eta kito (USB sarrera izango du gailuak).

Gailua mugikorrera entxufatzearekin batera interneta emango digu, baita bateria ere. Oso **erabilerraza** izango da.

Horrela, bi arazoak konponduko dituen eta horretarako puntako **prestazioa** duen gailua asmatuko dugu.

Hitz gutxitan, gure asmakizunak jada asmatuak dauden bi gauzen nahasketa egiten du: Kargagailu eramangarri eguzki plakaduna eta Modem USBa.

Orain arte ez dago bi ezaugarri horiek bateratzen dituen tresnarik, **berritasuna** dakar gure gailuak, gurea baita lehenengoa. Bi arazo potolo konpontzen dizkigu, bateria

eza eta internet eza, hauek biak nahi dugun lekuan eta momentuan ematen dizkigulako. Gainera, tamaina txikikoa izango da, gainerako kargagailu eramangarrien **diseinua** hobetuz.

Hau da gure balio proposamena.